


Txerriak eta loreak



Jon Arretxe

Bilduma: Uzta gorria, 40

Formatua: 135 x 205 mm

Orrialdeak: 168

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2025-11-22

ISBN-a: 978-84-1093-080-3

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

21,00 €



Azken urteotan Touréren sagan zentratuta egon ondoren, guztiz bestelako nobela beltza dakarkigu oraingo honetan Jon Arretxek. Hiri handietako lunpen guneak alde batera utzita, egileak fabulatu duen trama berria bera bizi izandako hiru herrietan garatuko da: Basaurin, Gasteizen eta Arbizun. Eta etorkin, etxegabe, prostituta edo bestelako biztanle zaugarrien orde, negozio aitorrezinetan diharduten bertoko aberats eskrupulugabeek hartuko dute protagonismoa.

Arbizuko hestebete-lantegi batean gertatzen den txistor lapurreta misteriotsua da abiapuntua, eta hortik aurrera umore klabean idatzitako trama beltza dator, oso beltza, erritmo bizikoa, elkarrizketa ugarikoa, «tarantinoar» estetikakoa.

Txerriak eta loreak ezohiko nobela da, laburra eta pertsonaia berezietz hornitua: Zuriñe Ruiz de Gordoa gasteiztar mandatugile bitxia, Gabriel Abrisketa basauriar enpresari ustela, Fermin Bakaikoa arbizuar txistorgile iluna... Harridura, dibertimendua eta ustekabeak ziurtatuta daude.

NOBELA BELTZA - USTEKABEAK - UMOREA - NEGOZIO ILUNAK

Jon Arretxe



Jon Arretxe (Basauri, 1963)

Euskal Filologian doktorea da, Heziketa Fisikoan lizentziatua, eta Piano eta Kantuko ikasketak ere baditu. Egile polifazetiko eta arrakastatsu honek aspalditik du ogibide idaztea, eta opera kantaria ere bada. Sortu dituen hogeita hamataka liburuen artean, bidaia-narrazioak (*7 Kolore*, *Tubabu*, *Oroituz*, *Griot...*) eta nobela beltzak dira nagusi. Azken genero honi dagozkio *Xahmaran*, *Tangerko Ametsak*, *Arrutiren banda* eta Toure ikertzailearen sailekoak: *19 Kamera*, *612 Euro*, *Hutsaren itzalak*, *Estolda jolasak*, *Sator lokatzak*, *Ez erran deus*, *Mesfidatu hitzez*, *Dortokaren begirada*, *Lyrica garaia*, *Musker amarruak* eta *Zenbaki gorriak*.

<http://www.jonarretxe.net>